

4. BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure enpresarentzat bezeroekin dugun harremana oso garrantzitsua da. Ez dugu soilik patineteak alokatu nahi, baizik eta bezeroek esperientzia ona izatea. Horregatik, gure oinarria tratu hurbila, errespetuzkoa eta konfiantzazkoa izatea izango da.

Lehenik eta behin, bezeroei laguntza erraza eta zuzena emango diegu. Web orrialdearen bidez edo telefonoz, bezeroek galderak egin ahal izango dituzte edo arazoak azaldu. Gure langileek modu atseginean erantzungo dute, dena ondo ulertzeko moduan. Helburua da bezeroek gustura sentitzea eta gure zerbitzuarekin pozik egotea.

Bestetik, kalitate oneko patineteekin lan egingo dugu. Patineteak seguruak eta egoera onean egongo dira beti, ondo zainduta. Bezeroak patinetea ondo badagoela ikusten badu, konfiantza handiagoa izango du gure enpresan, eta horrek berriro gure zerbitzua erabiltzea erraztuko du.

Gainera, prezio merkeak eskainiko ditugu. Gure helburua da zerbitzua ahalik eta pertsona gehienentzat eskuragarria izatea, baina kalitatea galdu gabe. Horrela, bezeroek ikusiko dute prezio onarekin ere zerbitzu ona jaso daitekeela, eta horrek guregan konfiantza izatea ekarriko du.

Azkenik, bezeroen iritziak kontuan hartuko ditugu. Galdera laburrak edo inkestak egingo ditugu zer hobetu dezakegun jakiteko. Bezeroek entzunak direla sentitzen badute, harremana sendoagoa izango da eta gure enpresarekiko atxikimendua handiagoa izango da.

